

KOSKADAK

12-20 hilabeteetatik aurrera umeen arteko lehen interakzio sozialak ematen dira baina oraindik umeek ez dakite erlazionatzen eta lehen gatazkak agertzen dira, atzamarkadak, koskak,...

ZERGATIK EGITEN DUTE KOXKA UMEEK?

-Zirrara, poztasuna edo maitasuna gehiegikeriagatik. Umeei izugarri gustatzen zaie elkar ukitzea, musukatzea,... baina, batzuetan ez dira gai zirrara hauek kanalizatzeko, urduri jartzen dira eta koskadak agertzen dira.

-Ahozko hizkuntzaren faltagatik. Oraindik, adin hauetako umeek ez dakite hitz egiten eta ezin dute hitza erabili beraien gatazkak ebazteko. Bere agresibitatea, zer nahi duten esateko modu bakarra da.

-Hortzaldiarekiko arazoengatik. Hortzak irteten zaizkienean, umeak oso gogaikarri daude; eta koska egiten dutenean lasaitasuna sentitzen dute, txarrena da lagun baten besoari kosk egiten diotenean.

-Ohituragatik. 7 edo 8 hilabete duten bitartean umeek egindako jarrera askok grazia egiten digute, adibidez, guri iletik tiratzeak edo kasu honetan, kozkada txiki batek. Jarrera hauek moldatu behar ditugu, haurrak ez duelako ulertzen hasieran indartzen zaion jarrera (grazia asko egiten digulako) handitzean zigortzen zaion.

-Pentsamendu egozentrikoagatik. Umeek ez dute beste baten azalean jartzeko ahalmenik. Gauza bat nahi badute, unean nahi dute eta ez dute ulertzen ere beste haur batek nahi duenik. "nahi dut eta kentzen dizut eta, aurka egiten baduzu, koska egiten dizut".

-Partekatzen ez jakiteagatik. Umeak ez dira berekoiak, oraindik ez dakite partekatzen. Erakutsi behar diegu.

-Gain-babesagatik. Adin honetan nahi dutena eta nahi duten momentuan edukitzera ohituta daude, eta hau eskolan zaila gertatzen da; "ez" hitza entzuten hasten dira eta haientzat ulertzea zaila da.

NOLA JOKATZEN DUGU ESKOLAN?

Edozein gertaera mota honen aurrean (koskada, borroka, atzamarkada,...) egiten dugun lehenengo gauza jotako haurraz arduratzea da, hura lasaitzea eta hari segurtasuna eskaintzea.

Liskarraldia eragin duenari ulertarazi behar diogu:

- * Egin duena ez dagoela ondo.
- * Horrela jokatu bere lagunari mina egiten diola .
- * Ez duela errepikatu behar.

Haurra alde batean uzten dugu lasai dadila eta taldera itzultzean, jarduera arruntarekin jarraituko du.

Honelako pasarte bat gertatzen den bakoitzean modu berdinean jokatzeko dugu, arauak eta mugak barneratuta gero daitezela.

Jokaera-modelo zuzenak indartzen ditugu (maitasun-adierazpenak, partekatzea,...).

Haurra babesteko eta etiketak saihesteko ez dugu esango koska egin duen haurraren izena (umeak ez dira txarrak, txarrak direnak bere akzioak dira).

Umeetako gauzak dira, familien arteko erlazioak kaltetu behar ez dituztenak.

NOLA JOKATU BEHAR DUGU ETXEAN?

Etxean ustekabe txiki hauek agertzen badira eskolaren antzeko eran jokatu behar izango dugu:

- Minduta dagoenari laguntza eman.
- Jokotik haurra erretiratzea.
- Akzioa gaizki dagoela ulertaraztea.

Ondorioak berehalakoak izan beharko direla kontuan hartu behar dugu: oso txikiak dira, eta oraindik ez dute ulertzen bere jokaeraren eta helduaren erreakzioaren arteko erlazioa.

Pasarte hauek gertatzen diren guztietan modu berean jokatu behar izango dugu.

Ez dugu drama handirik egin behar ezta gure haserrea luzatu ere, haurra jokotik aldentzen dugun une horretan besterik ez. Gehiegizko arreta saihestu beharko dugu; zergatik? haurrak koska gure arreta deitzeko eta haserrea pizteko erabili ahal duelako.

Haurrari interakzio modelo zuzenak eskaini behar dizkiogu: lagun edo panpin bati musu edo laztana ematen dionean goraiatu behar diogu,... jokaera okerrak desagerraraztea zein egokiak direnak irakastea oso garrantzitsua da.

"Borroka" jokoak eta hozkada txeratsuak saihestuko ditugu; umeek oraindik ez baitakite kontrolatzen eta jokoa dela pentsatzen dute.

Energia asko duten umei deskargatzen laguntzen dien jarduerak eskainiko dizkiegu (igeriketa, lasterketak,...) eta erlaxazio-jarduerak.

Ez erreakzionatzea jokaera oldarkorrekin.

PAZIENTZIA FAMILIAK !!!!

Familia eta eskolako baterako lana sarituta ikusiko da.